2015-IV-24
Número **459.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela.eus

# astekaria

## EDITORIALA

### Ordezkaririk ez

**Ez gaitu harritzen tartean-tartean Euskal Autonomia Erkidegoko patronal nagusiaren buru den Lujua jaunaren ateraldi itxura duten mezuak, serioski eta zirkinik egin gabe, entzun edota irakurtzea. Azkenekoa, edozein ateraldiaren itxura bazuen ere, esanahi sakoneko desioa aditzera ematera zetorren, orain arte hain modu argian esplikatu gabea, ziuraski. Euskal Herriko enpresen tamaina handitu behar dela eta eraginkor eta lehiakorragoak izateko argudioari helduta, ausartu da Lujua jauna esatera handitze horrek ez lukeela ekarri beharko langileon ordezkaritza handitzea, bizpahiru urtetan behintzat. Erpin guztietatik helduta, oso mamitsua ageri zaigu mezuan.**

**Erakutsia du Lujuak sindikatuekiko –gurekiko behintzat– duen begirunea eta errespetua. Hauteskunde sindikaletan erakunde sindikalen arteko lehian sartu eta apustu argia egin zuen, publikoki, sindikatu espainiarren alde. Hauteskundeen ataritan adierazi zituen gurekiko desioak –ordezkaritza maila 5 puntutan jaistea–. Huts egin bazuen ere, saiakera hortxe geratu zen. Beste kapitulua, oso larria eta iluna, patronalak ELA eta LABi sindikatu izaera kentzeko eginiko ahalegina. Tamalez, saiakera hori agerian geratu denean, Confebask-ek Eusko Jaurlaritzaren babesa izan du, beste behin. Bidelagunak elkarri egiten dute bidea.**

**Hain harro dabilen patronalari aginte politikoak eskura jarri dio oinarrizko lan eskubideak urratzeko tresneria osoa. Hori nahikoa ez eta patronalak, ahal balu, sindikal ordezkaritza kenduko luke eta, bere esku balego, sindikatua bera ere. Lujua jaunak jakin baitaki, itxurak aparte, sindikatuan dauden langileon ordezkariak direla gainditu beharreko azken harresia lan harremanak nahierara erabiltzeko. Ordezkariek eta sindikatuak ere badakigu defentsa kolektibo antolatuaz bakarrik egin diezaiokegula aurre aseezinezko patronalari. Horiek dira gure interesak, klase interesak.**

**Lankidetu!**

**Prekarietatearen aurkako borrokan sindikatuaren garrantzia nabarmentzea izango da ELAk Maiatzaren Lehenean zabalduko duen mezua**

# PREKARIETATEAREN AURKA, SINDIKATU INDARTSUA

Prekarietatea langile-jendeak egun duen arazo larrienetakoa da. Lan-baldintzak gero eta okerragoak bilatzeko estrategia honen helburua argia da: esklabo nahi gaituzte. Kapitalismoarentzat ez gara pertsonak, eskulan merkea baizik. Prekarietatearen kontrako borroka, noski, lehentasun bat bilakatu da ELArentzat eguneroko jarduera sindikalean.

Dena den, egoeraren larritasuna ahaztu gabe, funtsezkoa da baikortasunerako mezu bat zabaltzea. Posible da prekarietatearen kontra borrokatzea, posible da egoera irauli eta lan-baldintzetan aurrera egitea. Baina horretarako ezinbestekoa da sindikatua. Hots, elkarlana, antolakunde indartsu bat, militantzia, konpromisoa... Ez dago antolatu beste biderik; ez dago sindikatua beste biderik.

Hori izango da ELAk Maiatzaren Lehen honetan Bilboko kaleetan aldarrikatuko duena. Hori baita Maiatzaren Lehena: langile-klaseak bere izaera aldarrikatzeko eguna. Baina Maiatzaren Lehena festa eguna ere bada. Eta, hain zuzen, bigarren atal honetan aurten hainbat berrikuntza daude. Eguneko lehenengo ekitaldia, azken urteotan egin ohi den bezala, mitina izango da, Bilboko Jesusen Bihotzaren plazan, 11:45etatik aurrera. Hor ere aldaketa txiki bat egin da, aurreko urteetan baino 15 minutu beranduago hasiko baita. Mitinean idazkari nagusi Adolfo Muñozek hitz egin ostean, manifestazioa egongo da Kale Nagusitik behera Plaza Biribileraino; bertan amaierako ekitaldi txiki bat egingo da.

Bazkaria 14:00etan hasiko da Areatzan; han muntatuko da karpa erraldoi bat, 1.500 lagun hartzeko modukoa. Elikadura-burujabetza da borroka nagusietako bat mundu bidezko eta solidarioago bat eraikitzeko bidean, non pertsonei eta inguru-menari lehentasuna emango zaien, planetaren suntsipena ekarriko duen ekonomia-eliteen onuraren aurretik. Horregatik menuaren oinarrian elikadura-burujabetzaren ideia egongo da. **Maiatzaren Lehenean, denok Bilbora!**




**PRIMERO DE MAYO DEL 2015**

- **11:45. Sagrado Corazón, Bilbao. Acto sindical. Intervendrá Adolfo Muñoz, Txiki, secretario general.**
- **A continuación, manifestación hasta la Plaza Circular.**
- **14:00. Comida popular en el Arenal.**

**Pello Igeregi, responsable de ELA-Osakidetza, valora positivamente las dos nuevas jornadas de huelga en el sector**

# "ESTAMOS ORGULLOSOS DE QUE NUESTRA GENTE QUIERA SEGUIR LUCHANDO"



Los días 23 y 24 de abril, las y los profesionales de la sanidad pública vasca fueron llamados nuevamente a la huelga por los sindicatos ELA, SATSE, LAB, SME, FFHE, CCOO, UGT y ESK. El seguimiento de estas dos nuevas jornadas de paro en el sector fue importante, a pesar de los abusivos servicios mínimos impuestos. Pello Igeregi valora positivamente los paros, y afirma que "estamos orgullos de que nuestra gente quiera seguir luchando por el empleo y una sanidad pública de calidad".

*(Sigue en la página 2)*

# MAIATZAREN LEHENA 2015 PREKARIETATEARI EZ!




Mugimendu sindikalarentzat erronkaz beteta dagoen oraina eta geroa ikusirik, Maiatzaren Lehen honetan ELAk lehenik gorazarre egin nahi die bere militanteei, hauek euskal langile-klasearen interes eta helburuak defenditzeko prest dagoen proiektuarekin agertzen duten konpromisoa dela eta; hain zuzen, militanteon lanari esker proiektu horrek ELAren gehiengoa berritu ahal izan du hauteskunde sindikaletan. Bere nortasunaz harro dagoen militantzia hau altxor bat da, kosta ahala kosta zaindu beharrekoa.

**Klase harrotasuna.** Borroka sindikala ez da filme askotan agertzen eredugarri diren beste borroka batzurekin bat eginda (esaterako, gay eta lesbianen eskubideen aldekoa). *Pride* (Harrotasuna) da filme bakan horietako bat. Bere protagonistek etsai beraren aurkako borrokan dihardute: identitate kolektiboak suntsitzeko eraso sistematikoa. 1984ko Britania Handian Margaret Thatcherri aurre egiten diote. Gaur Europan apenas dagoen ideologia hartatik elikatu ez den gobernurik. Aipatutako filmeak irakasten du elkarrekin lan egiten, harreman-kodeak aztertzen, erdipurdiko bideak edo norberekoikeria baztertzen, borrokak bat egiten... Erakusten du itxuraz desberdinak diren helburu sektorialekin etsai beraren aurkako borrokan berdinak izan gaitezkeela. Filme honek mezu alai bat ematen digu, konpromisoaren eta borroka kolektiboaren balioa. Gu ere ELAn borrokan ari gara solidaritatea inoiz baino biziagoa izan dadin, borroka kolektiboa iraganeko kontua izan ez dadin. **Harrotasunez: *Pride*.**

**Sindikatuak indarra ematen digu.** Ezinbestekoa da analizatzea gobernuek eta instituzioek kapitalaren nahiekin nola ezkontzen diren. Kapitalaren interesak politikan ondo ordezkatuta daude, eta bitartean kapitala gu pobretuz gozatzen ari da. Bere asmo bakarra diru gehiago pilatzea da. Hala da, desberdintasuna gero eta handiagoa delarik, gobernuek joera hori geldiarazteko erabaki oro baztertzen dute. Gobernuek onartu egiten dute debate politikoa kapitalak nahi duen mugetan geratzea, horrela politika areago antzerki kutsuko zerbait bilakatzen delarik. Gero eta antzerki eta propaganda gehiago, ezartzen dituzten doitze politikak ezkutatzeko. Gainera, gobernuek pertsonarik ahulenen babeserako tresnen aurka ekiten diote: negoziazio kolektiboa, fiskalitate progresiboa, zerbitzu eta prestazio publikoak, demokrazia, parte hartze soziala... Besterik egiten ez badugu, instituzioak beste politika bat egitera derrigortzen ez baditugu, hazkunde ekonomikoak desberdintasun handiagoa ekarriko du.

**Haien helburu nagusia prekarietate laboral eta soziala da.** Izan ere, prekarietateari esker askoz diru gehiago irabazten baitute, gure jendea azpiratuta daukate eta gure nortasuna, kolektibo gisa, lausotuta geratzen da. Horretan datza gaur egun neoliberalismoa: indibidualismo areagotuan. Indibidualismoak lasai jarduteko aukera ematen die, eta defentsa kolektiboak, aldiz, mugak jartzen dizkie. Prekarietate laboral eta sozialera edota bazterketara zigortzeak pobretu ez ezik diziplina ezartzen du. Eurek nahi dute mugimendu sindikalak men egitea sistema kapitalistaren diktatuei, sistema honek bere aurpegirik lazgarriena erakusten duen honetan.

**Protesta sindikal eta sozialak, kriminalizatuta.** Baina gainera gatazka sozialaren adierazpideak ez zaizkie gustatzen; horregatik ezartzen dituzte kontrol sozialerako eta protestak kriminalizatzeko legeak. Badakite sindikalismo antolatua beren asmoetarako oztopo bat dela, eta ez dute onartzen. Sindikalismoak badaki indarren banaketa oso desberdina dela; horregatik berresten du sindikatua, langile-klase antolatua, dela indarra ematen diguna. Hori da ELAk egoera honetan bere militanteei helarazi nahi dien mezua.

**Nahi dute onartzea beren politikak ez duela alternatibarik.** Lan munduan esplotazioa inposatzeko, enplegua galtzen dutenentzako prestazioak mozteko eta kontratu ezin kaskarragoak onartzera derrigortzeko. Bien bitartean, publikoa den guztiari eraso egiten diote, interes pribatuek negozio aukera izan dezaten. Gaur ELAren ustez sindikalismo abertzaleak gure herriaren burujabetzari egin diezaiokeen ekarpenik nagusienetakoa justizia soziala eta solidaritatea defenditzea da.

---




**-¿Qué valoración hacéis de esta nueva fase de movilizaciones que ha culminado con estos dos días de paro en Osakidetza?**

-La valoración es positiva. Con unos servicios mínimos claramente abusivos, la gente que tenía opción de hacer huelga la ha hecho de manera mayoritaria. Además, la participación de los y las trabajadoras fue importante en las concentraciones del día 23, realizadas en los hospitales de Cruces –Barakaldo–, Santiago –Gasteiz– y en la Plaza Pio XII, en Donostia. También en la manifestación del día 24, que recorrió las calles de Bilbao bajo el lema *Kalitatezko Osakidetza baten alde, enplegua sortu! No más robos*.

La idea que me gustaría transmitir es que estamos muy orgullos de que los profesionales del sector, en general, y nuestra gente, en particular, quieran seguir luchando en y por Osakidetza. Quienes han ocupado las calles son quienes están apostando realmente por nuestra sanidad pública.

**-Una vez más lo servicios mínimos impuestos han sido tristes protagonistas.**

-Es evidente que los servicios mínimos impuestos vulneran el derecho de huelga. Quieren impedir que se escuche la voz de quienes defendemos nuestra sanidad pública, pero lo cierto es que no lo están consiguiendo.

**-El consejero de Sanidad, Jon Darpón, ha afirmado que la huelga es una irresponsabilidad.**

-Al consejero Darpón hay que decirle tres cosas muy importantes. En primer lugar, que deje de hacer demagogia y apueste realmente por una negociación con contenidos, porque hasta ahora lo único que ha hecho son movimiento tímidos y mediáticos que no responden a las necesidades de la plantilla y de la sociedad. En segundo lugar, que miente. Y, en tercer lugar, que el único irresponsable es él y su departamento.

Miente cuando intenta convencer a la opinión pública de que el conflicto en Osakidetza es un mero debate salarial, cuando sabe perfectamente que la prioridad es el empleo, que se han perdido 3.000 puestos de trabajo que hay que recuperar.

Y es un irresponsable por no dar pasos para abordar los problemas que la parte social reclama. Los únicos responsables del perjuicio causado a los y las pacientes en esta huelga y en las venideras son los dirigentes del servicio vasco de salud.

**-¿Y ahora qué?**

-Nosotros tenemos voluntad de negociar y de llegar a acuerdos, pero para ello tiene que haber propuestas reales, que prioricen, como no nos cansamos de repetir, la creación de empleo. Por tanto, las movilizaciones seguirán adelante si Osakidetza no realiza una apuesta real por el empleo, por su calidad, por mejorar el servicio y eliminar la doble escala salarial que ha supuesto la suspensión del desarrollo profesional.

Estas nuevas jornadas de movilizaciones han sido una llamada de atención a la dirección de Osakidetza. El conjunto de la plantilla le ha reclamado que negocie. Habrá que ver cuál es la respuesta del Departamento.

A la espera de acontecimientos, lo que sí tenemos muy claro es que mientras haya gente que quiera luchar y los recortes continúen, ELA seguirá llamando a la movilización.

## ELA denuncia que las estadísticas oficiales no reflejan la realidad de la siniestralidad laboral

# 44 MUERTOS EN EL TRABAJO




***Ezker-eskuin Leire Heredia, Adolfo Muñoz eta Leire Txakartegi, Lan Osasun eta Segurtasunaren Nazioarteko Eguna dela-eta egindako txostenaren aurkezpenean.***

"La lucha contra la siniestralidad requiere tomar medidas que van en contra de los intereses de la patronal. Sin embargo, la realidad es muy distinta. Las administraciones públicas han decidido dar por buenas la precariedad, el fraude de ley en la contratación y la subcontratación sin control. Ni Osalan, ni el Instituto Navarro de Salud Pública y Laboral ni la Inspección de Trabajo cumplen con su función de seguimiento, control y sanción a las empresas que incumplen la normativa en materia de prevención de riesgos laborales". Ese es el diagnóstico que hacen Leire Txakartegi y Leire Heredia, responsables de salud laboral de ELA. Un diagnóstico que se recoge en el *Informe de Siniestralidad Laboral en Hego Euskal Herria 2014* presentado con motivo del Día Internacional de la Seguridad y Salud en el Trabajo.

Txakartegi y Heredia destacan que durante el 2014 no mejoró en absoluto la situación de las empresas en materia de seguridad y salud laboral. "Los datos de siniestralidad no han mejorado. El número de accidentes laborales aumentó ligeramente, mientras que el de accidentes mortales disminuyó, pasando de 55 a 44. Desgraciadamente, el descenso del número de accidentes laborales mortales no es consecuencia de una mejora en la situación de la salud y seguridad laboral, sino es consecuencia de una menor actividad económica en los sectores con mayor siniestralidad, como la construcción".

El informe recoge una serie de propuestas: un cambio radical en las políticas públicas; empleo digno y con derechos; sanciones contra los incumplimientos en salud laboral; mayor centralidad a las enfermedades profesionales; impulsar la acción sindical y la negociación colectiva.. Sin embargo, según denuncian las responsables de ELA, ni la administración pública ni la patronal tienen voluntad de afrontar este tema. "Una muestra de esto es la recientemente aprobada *Estrategia de Seguridad y Salud Laboral 2015-2020* en la CAPV. Una nueva ley que, tanto en el fondo como en la forma, es una mera continuación de la actual, lo que demuestra la poca o nula voluntad de afrontar en serio esta materia".

### ACTOS EN BURLATA Y BILBAO

Además de la presentación del informe, nuestro sindicato ha organizado actos en Burlata y Bilbao con motivo del Día Internacional de la Seguridad y Salud en el Trabajo. En Burlata el acto fue el 24 de abril; en Bilbao, por su parte, será el 28 de abril en el Paraninfo de la Universidad del País Vasco, en Abandoibarra, a partir de las 10:00.

## NUESTRA SALUD ESTÁ EN JUEGO

## ¡FUERA LAS MUTUAS DE LAS EMPRESAS!

Este 28 de abril, Día Internacional de la Seguridad y la Salud Laboral, ELA quiere poner el foco de su denuncia en la Ley de Mutuas, que entró en vigor el 1 de enero de este año. Los contenidos de esta Ley suponen un nuevo paso atrás en la defensa de la salud de las personas. En definitiva... **¿qué supone esta Ley?**

### + Campo de acción para las mutuas

Se da un paso más en la privatización del sistema de salud. No olvidemos que las mutuas son entidades privadas que colaboran en la gestión de la Seguridad Social.

Reforma tras reforma, han ido asumiendo cada vez más funciones que correspondían al sistema sanitario público, sobre todo en la gestión de las contingencias comunes.

### - Sistema público

Mientras, el sistema sanitario público sigue sufriendo recortes.

---

### + Poder a las mutuas en las bajas por contingencias comunes

En aquellos casos en que la empresa tenga concertada con una mutua la gestión de las bajas por enfermedad común, ésta contará con más instrumentos para intentar acortar dichas bajas desde el primer día: podrá emitir propuestas de alta médica a los servicios públicos de salud, llamar a reconocimientos médicos, acceder a la historia clínica de la persona enferma...

Hasta ahora, si el personal médico del sistema sanitario público no contestaba, el alta no se convertía en definitiva. Ahora, si no hay contestación en cinco días, pueden pedir la intervención de la Inspección del INSS, que estará obligada a contestar en cuatro días.

### - Margen de actuación para el personal médico de Osakidetza y Osasunbidea

En la práctica, serán las mutuas las que supervisen el trabajo del personal médico del sistema público, que se verán sometidos a una gran presión para que respondan a las propuestas de alta en el menor plazo posible.

---

### + Poder a la patronal

Las mutuas son entidades patronales gestionadas por las empresas adscritas a las mismas, y sus equipos directivos son nombrados por el mundo empresarial. Esto explica su connivencia con las y los empresarios a la hora de interpretar y aplicar la normativa correspondiente en las decisiones que aplican.

### - Protección de la salud de las y los trabajadores

Las mutuas actúan bajo criterios economicistas. La protección de la salud de las y los trabajadores se verá afectada negativamente.




---

### + Dinero público para las mutuas

Siempre que haya acuerdo entre la empresa y la mutua, se podrá destinar a ésta una parte de la rebaja de las cotizaciones sociales (el llamado "bonus") a la que tenga derecho la empresa cuando sus índices de siniestralidad laboral estén por debajo de la media de su sector de actividad.

### - Protección frente a las actuaciones abusivas de las mutuas

Para acceder al "bonus", algo que en última instancia decide la Seguridad Social, necesita un informe de la mutua. Además, en la determinación del índice de siniestralidad del sector las mutuas tienen mucho que decir, porque son ellas las que tratan los accidentes de trabajo y las que hacen la primera consideración acerca de si son o no una contingencia profesional.

Las prácticas irregulares de las mutuas van a aumentar: negando el origen laboral de las enfermedades, dando altas indebidas...

### ERREFORMA HAU ENPRESETAN GELDIARAZ DEZAKEGU

**Negoziazio kolektiboa da gure esku dugun tresna bakarra egoera honi aurre egiteko.**

**Mutualitateek gure enpresan botere handiagoa lortzea eragoztea posible da, exijituz gero gaixotasun arrunteko bajen kudeaketak:**

- **sistema publikoan jarrai dezan**
- **sistema publikora itzul dadin, mutualitate baten esku jarri badute.**

**MUTUALITATEAK LANTOKIETATIK KANPORA!**

**Gure osasuna jokoan dago**

## LABURREAN / BREVES



### • 'El Corralito Foral' liburuaren aurkezpena

ELAk Nafarroako zerbitzu publikoetan duen arduradun Ivan Gimenezek *El Corralito Foral* liburua argitaratu berri du. Bertan, egun Nafarroan indarrean dagoen erregimenaren azterketa zorrotza egiten du. Horretarako, XIX. mende amaieratik gaur arteko ibilbide historikoa jasotzen da, gaur egungo egoera ulertzeko ezinbestekoak diren gakoak eskainiz. Liburu ausarta idatzi du Gimenezek, zorrotza, Nafarroan boterean dagoen erregimen horren kontrako kritika sakona. Horren jakitun, hitzaurreko lehen lerrotik oharra luzatzen du Gimenezek: "liburu hau ez da gustagarria izango". Izan ere, argi eta garbi frogatzen duenez, Nafarroan ere bete egiten da Rafael Chirbes idazlearen esaldi sonatua: "fortuna oro bidegabekeria batetik dator, krimen batetik ez datorrenean".

### • Akordiorik ez Eusko Irratian

Akordiorik gabe amaiatu da Eusko Irratiaren Enplegu Erregulazio Espedientea negoziatzeko zuzendaritzak eta bertan ordezkaritza duten sindikatuek iragarritako kontsulta-aldia. ELAk zuzendaritzak aurkeztutako erregulazio-espedientea erretiratzea exijitzen du, emandako arrazoiak –arlo ekonomikoari zein antolaketari lotutakoak– ez daudelako inondik inora frogatuak sindikatuei emandako txostenean. Hori guztiagatik, zuzendaritzak ez badu Enplegu Erregulazio Espedientea bertan behera uzten gure sindikatuak epaitegietara joko du, erregulazio-espedienterako arrazoirik ez dagoela argudiatuta.

### • Greba Gipuzkoako Erresidentzietan

ELAk greba egunak deitu ditu maiatzaren 6, 7 eta 8rako Gipuzkoako egoitzetako sektorean. ELAk gogor salatu nahi du sektore honetako patronalaren jarrera: ez da negoziazio-mahaitik azaltzen, eta negoziazio kolektiborako eskubidea urratzen du.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, sektoreko %90 finantzatzen duenez, negoziazio-proposamen ireki bat luzatu zigun sindikatuoi eta patronaletako ordezkariei martxoaren 5ean. ELAk nabarmentzen duenez, negoziazio-mahaiaren azken bilera martxoaren 13an egin zen. Egun hartatik patronala desagertu da, ez du bilera-deirik egin negoziazio-mahairako, eta galdera erraz bati ez dio erantzuten: ea onartzen duen edo ez Aldundiaren proposamena, hau da, hitzarmenak berritzeko negoziazioetan akordio bat egitea.

### • Ertzaintzako murrizketen eta inposaketen aurka

ELA, ErNE, ESAN, SIPE eta EUSPEL sindikatuek deituta manifestazioa egin zen apirilaren 22an Bilbon. Protestaren helburua negoziaketa erreal bat irekitzeko Segurtasun Sailak erakutsitako borondate eza salatzea izan zen.

ELAk Segurtasun Sailaren jarrera deitoratzen du, ez duelako egun ertzaintzak dituen arazo larrien inguruan negoziatzeko inolako borondaterik: murrizketak, lan-baldintzen okertzea, *Horizonte 2016* plana, inposatutako ordutegiak eta egutegiak, RPTa...




### • ELA exige a las haciendas vascas que publiquen los nombres de las y los defraudadores

En relación con la polémica surgida estos últimos días en torno a la publicación de la lista de las personas que defraudan a la hacienda estatal, ELA demanda a las haciendas forales de Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra que hagan públicos los nombres de las y los defraudadores. ELA ha denunciado muchas veces la opacidad con la que actúan las haciendas, y reitera nuestra petición para que entre las diversas medidas a adoptar para luchar contra el fraude fiscal, esté la publicación de la lista de quienes defraudan.

# CAMBIOS ORGANIZATIVOS

El Comité Nacional ha aprobado una importante serie de cambios organizativos. Eustakio Uranga, responsable de organización, destaca que estos cambios tienen como objetivo que el sindicato siga siendo un elemento cada vez más preparado para afrontar los importantes retos que tiene la clase trabajadora.

"Cada cierto tiempo resulta imprescindible hacer un análisis de nuestra situación organizativa y planificar el futuro como organización. Tenemos la obligación de ser lo más eficaces posibles como sindicato al servicio de las y los trabajadores de Euskal Herria, y esto requiere estar en continua evolución. El trabajo en las comarcas y federaciones es grande, lo que nos exige estar adecuándonos constantemente a las necesidades organizativas".

Los cambios aprobados afectan tanto a comarcas como a federaciones. De este modo, Arrate Elkoro, Uxue Mingo, Amagoia Unanue e Itziar Larrazabal serán las nuevas responsables comarcales de Gernika-Durango, Oarso-Bidasoa, Urola-Kosta y Eskumaldea respectivamente, en sustitución de Iñaki Arrieta, Pablo Garmendia, Andoni Eizmendi y Deiane Arrieta. Iñaki Arrieta y Andoni Eizmendi pasarán a reforzar la federación Industria eta Eraikuntza; Pablo Garmendia será nuevo miembro de la permanente de Zerbitzuak y Deiane Arrieta se encargará de tareas interfederales en Gasteiz.

## MARICRUZ ELKORO, SECRETARIA GENERAL DE ELA-ZERBITZUAK

La incorporación de Pablo Garmendia no es la única novedad que tiene ELA-Zerbitzuak. Maricruz Elkoro será la nueva secretaria general de la federación, en sustitución de Mirari Irure, que seguirá como miembro de la permanente de la federación. "La continua precarización de las condiciones laborales es una de nuestras principales preocupaciones. Y es evidente que las y los trabajadores que abarca esta federación son quienes más lo sufren. Por eso consideramos importante reforzar ELA-Zerbitzuak".

"Además de la enorme precariedad –añade Eustakio Uranga–, la atención cada vez mayor a los sectores subcontratados requiere un tratamiento organizativo acorde al reto que se presenta. El sindicato tiene que ser una organización viva, activa, en continua evolución. En este sentido, los magníficos resultados que hemos logrado en el periodo concentrado de elecciones sindicales son el mejor aval para seguir luchando en favor de la clase trabajadora, como hemos hecho hasta ahora".

**www.ela.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela.eus

Franqueo concertado
nº 08/207